

KANALAK

Gure produktua kanal propioak erabiliz zabalduko dugu. Pangananilloak estatu mailan saltzen ditugunez, garrantzitsua iruditzen zaigu hiri populatu batean kokatzea. Gure kasuan, Madril hiria aukeratuko dugu, eta bertan ahalik eta zentroen finkatuko dugu gure denda fisikoa. Horrez gain, webgune bat sortuko genuke, gure bezeroek produktua erosterakoan erraztasuna izateaz gain, gaur egungo teknologia aurreratuari esker, munduko edozein lekuetako bezeroak gure zerbitzuarekin harremanetan jarri daitezkeelako.



Zuzeneko kanal bat eskainiko genuke, gaitasun handiko eta bezeroaren zerbitzura bideratutako saltzaile-talde batekin. Profesional horiek gure produktuak saltzeaz gain, bezero bakoitzaren premia individualak ulertzen ere jardungo dute.



Kanal propioa eraikiko dugunez, etekin-marjina handiagoa da, hau da, kanala zabaltzeko guk erabakitzen dugun denbora izango dugu, epe mugagabea izango delarik. Baina kanala guk sortu behar dugunez hasieratik, hau ezartzea eta kudeatzea konplexuagoa izan daiteke, ez baitaukagu laguntzarik eta gure esperientzia ezak prozesua okertu dezakeelako.

Online webguneari dagokionez, denda fisikoan ez bezala, posta bidez egin beharko dugu audifonoen banaketa, gero, bezeroei, garraio-enpresa baten bitartez, beren produktua entregatuko diegu.

Gure produktua gorde ahal izateko, egokia iruditzen zaigu biltegi bat gure esku izatea. Bertan, Estatu Batuetako enpresak guk eskatutakoa ekoitzi eta bidaliko dizkigun pangananilloak biltegitratuko ditugu. Hau da, biltegia ez da Ameriketako enpresaren jabetzakoa izango, honi ekoiztea besterik eskatu diogulako. Produktua gurea denez, gure esku dagoen biltegi batean almatzenatuko dugu produktua.



Bestalde, biltegia denda fisikotik gertu kokatuko dugu, edozein momentutan denda produkturik behar izan ezker, eskura izateko aukera egokia iruditzen baitaigu.